

Karlisten gerrateko kantak (II)

Historia aldetik beren garrantzia dutenak, zenbat guduz, Ertzilek kantatu zizkidanetatik honako hauek dira garrantzitsuenak: Irun, Araba eta Abarzuzako guduak edo atakeak.

Gipuzkoan bazter baten erritxo bat Irun; ia orren gainean zerbat esan deigun; Alperrikan atakan, Irun gau ta egun, an sartzeko karlistarik ezta jaio iñun.

Descuidu baten karlistak artu balebe Irun, kanparrain osorik ez zan geratuko iñun. Len argialdi bat izan dogu, orain gagoz illun, indar geixagon kontra asko joi dabigun.

Inoiz, lehen lerroan "Gipuzkoa bazartxuan" kaniatu zidan, eta azken lerroan "jaio"ren ordez "sortu". Eta, lehen eta bigarren bertsoak zortziko txikian kantatuarren, beren jarraian koplazko bertsoa kantatzen zuten, Xempelar eta Musarro koplak opsetuosen doinuz, bukaeraz puntu bat gehituaz, behar bada karlisten kontra gero asmatu. Honela da koplak: **Zenbat bonba dan erori, begiratzekerik nori,**

itxura ederra eman diote Irungo errixori. Karlistak beti, relijiñua, merke ta ugari.

Arabako gudu bat ere aipatzen du, batzuen balentriak eta beste-ten kobardiak kontatuz: **Arabako Segunda leenbizi zan asi; laster igarri genion ez zala nagusi. Armok bota lurrera, arinka igesi, estuasun andiagorik ez dogu ikusi.**

Baina hiruretan poliena Abarzuzako guduarena da. Hogetabost mila karlistak euskaldun omen ziren berrogetahamar mila liberalen kontra eta gutiago zirenak gehiengo irabazi. Han erori omen zen Concha del Duero jenerala ere, bere Marques del Duero titulu ta guzi. Baina, gudu hartako politena, buruzagiak soldaduei hitsaldiz bota zien arenga hura da: "Muchachos! Va frente de vosotros vuestro general; no hay que doblegarse. Un soldado ha de defender su patria ¡Una bala tiene que recibirse como si sería una carta de la novia!"

Hau liberalen lepotik parre egin nahirik bildu ahal izan nion bertso sorta da. 1874an Izarrako hiria bereganatu natrik hil zen Manuel Gutiérrez de la Concha,

Marques del Duero, zenaren kontura.

Hirugarren bertsoak zatia falta du. Hala ere, Ertzil ez zen hortaz hartzen eta laburpenik ez bezala bezala kantatzen zuen.

Hala zen Ertzilen ustez gerra haren zer ikusi guzia jokatzen zen guduak: **Atakian pasatu eitugu iru egun, gabaz ere igual, egonarren iñun. Gu atzeratzekerik apenez da iñun; Concha biakdu dogu Luziferren lagun.**

Arro ta panparroso baebillen galaz, ez genduela botako euskaldunen balaz; ikusi genduanin tiratzeko eraz, laister ipini gendun eramateko andaz.

Nunbait llenagotikan euken delitue, Abarzuzako atakien or da gelidite; Concha-k izan biar eban balitzen peritue.

Joakin Olañeta Ibarzabal "Ertzil" zena, aurrekoan esan bezala, 1885. urtean jaioa zen. Behin batean esan zidanez, kan-

tarik gehienok bere aitonagandik ikusiak omen ziren. Zeren bere aitonak ere bertsoak paratzen ba omen zenkien, Aitona, Tomas Ibarzabal, Jemeingo Arretxinagako zela, esan zidan; baina ondoko bertsoan ber berak esan duenez "Illorotxixen" jaio zen, eta Barihako Illoro-gotia delakotzat nago.

Hara hemen Tomas Ibarzabal, "Ertzil"en aitaitak bere buruari jarritako bertsoak:

Beste mundurako bere laster da abixue; beti emen bizitzia ezta presixue. Orain larogei urte Illorotxixen jaie,

ez juak arrue asko Tomas gizajue.

Agin zoarrok jaun jakuz, ezin dira berdindu: burua zuritu ta bizarrak urdindu; ume batzuek orain eitzezkuue agindu.

Bai hemen eta bai gainerakoetan, irakurleak oharuko da, bertsoak funtsean gipuzkeraz badaude ere, inoiz bizkaitar joera dutea. Lehenago ere aditzera emana dugunez, bizkaitar bertso-lariak bereziki Markiñaldekoak,

gipuzkerari joera gintzari helzen dituzte.

El presente artículo de la segunda guerra se centra en algunas batallas con algunos nombres de batallas de Irun, Abarzuz. El bersalar, el soldado, no puede olvidar el tar de ridiculizar a los carlistas y sus cabeceras las estrofas más como son las de Abarzuz, con una de la arenga del general Gutiérrez de la Concha. Gutiérrez de la Concha pretendió tomar la plaza y es la que preside la plaza.

Joaquín Olañeta "Ertzil", que me contó versos, nacido en 1885, decía que en estos versos eran su abuelo, por lo que Tomás Ibarzabal y yo era bersalar y recordaba trofas cantadas por los ochenta años de edad.

Euskal musikoen mendeurren

Bonifazio Laskurain

Laurogetasei urte zituen Bonifazio Laskurainek nik ezagutu nuenean; hobeto esateko, lehenik ezagutu nuen bere lana, baina personalki Bergaran ikusi nuen 1968.eko Ekainean, on Jose Larrea apaiza ikustaldian lagun zelarik. Larrea jauna lehenik ezagutzen nuen, 1945an piano irakasle izan nuen Bergarako Seminarioan eta. Nere antzinako maisuarekin joan nintzen bada Txistularien Aitona ikustera. Apala izan arren, titulu hau ematen zion Bonik bere buruari eta beragandik hartutako gutunen baitan titulu hori, ohoretzat hartua, darabil. Isidro Ansorena zeukan maisutza, eta hernaniarrak salbata zuela txistua Euskalerrian esaten zuten Bonik. Bermeoko Larriñagatarrak, Markinako Ansolatarrak eta Oinatikotarrak miratzen zituen bergararrak, baina trebetasunaren gainetik ez zuten ahaztuzten beren zela Txistularien Aitona, orain Demetrio Garraizabal den bezala... Egun haie-tatik hamar urte barru hil zen Bergaran, 1978.eko Urriaren 9an Bonifazio Laskurain Olano 96 urtedun.

Bizitza luzea benean Irunen 1882.eko Maiatzaren 14an jaio zenetik. Sei urte zituelarik Bilbonara joan zen bizitzen Laskurain eta Leandro Arbide organulariekin egin zituen lehen ikasketak, parrokiako tiple izanik. Eta 14 urtekin, 1896an, txistua ikastera bidali zuten aitak Donostiara Eusebio Basurko handiaren babespera. Bilbonatik Donostiara bideak bost urte zehar ibili ondoren, 1901an herriko txistulari aukeratzeko gure gure Boni eta hamabost urtean beteko du eginkizun hau. 1906an Donostiako Txistu Lehiaketa batelan lan behartu gisan jarri zuten partitura baten ikusten du Bonik txistuak ezin duela lan ekitu-

tako si bemol bat jo, eta arazo honek kezkatzen du gure txistularia, hogeitaz beranduago Bergaran, Justo Mendarozketa lagun-tzaile delarik, berak egindako txistu batekin nota hori jotzea lortzen duena.

Dantzaria eta pelotaria ere izan zen Boni gaztetan, eta hortik aterako du bere bizkortasuna bizi guztirako. Nik ikusi nuenean eten gabe jarraitzen zuten lanean txistugile trebe zelarik. Jaungoikoak esango dit -esaten zuten- noiz izango den nahikoa! 1916an Bilbonatik Bergara joan zen bizitzen Textil Mugeran lana aurkitu ondoren. Eta 1926an Bergarako Udalak herriko lehen txistularia hautatu zuten Bonifazio Laskurain. Orduarok, bi aldiz ezkontuta, lau seme-alaba zituen gure txistulariak: mutil bat haurtzarora hil zen eta neska bakarra ere komentatu gabe zelarik. Seme bi geratzen ziren etxean, Felix eta Justino. Biak txistulariak eta aitak esaten zenez, Justino, 36 urtekin gazte hil zena, aita bera baino txistulari bikainagoa. Biekien sortu zuten Bergaran Herriko Txistu Banda, eta 1945an hasita, Felix semearekin, txistugintzan satatu zen gure Aitona.

Txistua zen izatez Boniren lagunik hobereana. Ez zuten etxetik iraitzen txisturik gabe. Eta edonon jotzen zuten bere txistu maitea. Orfeoi Donostiarrak Portugalderaldia egin zuenean osteraz luze bat, txistu laguntzaile gisan eraman zuten Bergarako Txistularia.

Eta 1936an Londonera joateko zirenean Orfeoioak, Boni nahi zuten eraman taldean; baina gerrak moztu zuen asmoa eta ametsa. Hainbat txistu lehiaketetan parte hartuz, gehienetan izan zen Boni garaile. Azken lehen saria Donostiako lehiaketa baten irabazi zuen 1950an. Gerotxoago,

Euskal Dantza Berriak sortzeko antolatua izan zen Lehiaketan, bigarren saria lortu zuen gure txistulariak.

Txistulari, txistugile, txistu irakasle eta txisturako musikagile ere bait zen Boni Laskurain. Mendizalea zenez, eta perretxiko biltzaile jakintsua, menditik zebilela asmatzen zituen Bonik txisturako doinuak. Asko baino gehiago dira Boniri zor dizkiogun doinuak, lehen Txistulari aldizkarian eta gero 100 txisturako Bilbona liburuan eman zituenak. Liburuaren mile alekoa lehen argitalpena berehala agortu zen eta bigarrena, beste mile alekoa ere, laster kendu zitoten eskuetatik txistuzaleek. Txistua izan zen alegia Boniren maisuunik handiena, txistuzaleekin musika bere bizi guztian bizi baizen. Eta gure txistularien artean penteragoa izan zela Bonifazio Laskurain esan genezake. Nere Musicia Vasca liburuan eman nuen txistulari boskote handi baten argazkia: bertan agertzen dira, Arreako elizaren aurrean, gure Boni, Jose Mari González Bastida, Isidro Ansorena, Aita Olazaran Estellakoa eta Joseba Olaizola. Zaila izango da berriz holako boskote bat bilatzea.

Amaitzeko esan beharko dena da, bergarar batek, Simon Arrieta, egin zuela Bonifazio Laskurainen erretrato bat.

José Antonio ARANA MARTIJA

Cuando conocí a Bonifacio Laskurain en Bergara, tenía ya éste 86 años. Mucho antes me era conocido por sus obras para txistu, pero le conocí personalmente, en 1968, acompañado de don José Larrea, mi primer profesor de solfeo y piano en el Seminario de Bergara en 1945.

Aunque Laskurain admiraba como maestro a Isidro Ansorena,

y como virtuosos ejecutantes a los Larrinaga de Bermeo, a los Ansoa de Elgoibar-Marquina y a los Iriarte de Oñate, nadie le podía quitar el título de Aitona de los Txistularis con que él mismo se llamaba.

Bonifacio Laskurain Olano falleció en Bergara el 9 de Octubre de 1978 a los 96 años. Había nacido en Irura el 14 de Mayo de 1882, ahora hace cien años. Cuando tenía seis años, la familia pasó a vivir a Villabona, donde recibió las primeras lecciones de solfeo del organista Leandro Arbide, llegando pronto a ser tiple de la parroquia. En 1896, siendo clarinete de la Banda, su padre le envió a San Sebastián a dar clases de txistu con el gran Eusebio Basurko, hasta que en 1901 fue nombrado Txistulari 1.º de Villabona. En 1906, en un Concurso de San Sebastián vio que el instrumento no podía dar el sí bemol agudo que exigía la partitura obligada y no paró hasta que trabajando el instrumento por dentro logró hacerle dar esa nota, lo que consiguió, según me contó, en 1926 contando con la ayuda de Justo Mendarozketa. En 1916 se trasladó a Bergara a trabajar en la Textil Mugerza. Ya había casado dos veces, con dos hermanas, y tenía cuatro hijos: un chico murió y la única chica murió también joven en un convento. Le quedaban dos hijos, Felix y Justino, siendo éste, al decir del padre, un gran y habilidoso txistulari; pero murió también joven, a los 36 años. Su otro hijo le ayudó en el taller de fabricación de txistus que montó en Bergara. En 1926 ganó la plaza de Txistu 1.º de Bergara y por dimisión del Txistu 2.º, hubo de formar Banda con sus dos

mencionados hijos participó en concursos obteniendo premios. El título como intérprete en un Concurso de txistularis en 1900.

Gran txistulari, muchos años participó en concursos obteniendo premios. El título como intérprete en un Concurso de txistularis en 1900.

Txistulari, clarinetista, además compositor de Txistus. Docto monte, cuando un momento en que la piración que llevaba a un cuadernero. Frases acompañadas fueron taciones que pudimos Txistulari y su luz en su libro txistu. Dos ejemplares cada uno rápidamente.

Aunque en su raba a otros maestros, hay un Bonifacio Laskurain. Txistulari de composición de Músicia Vasca un quinto aniversario iglesia de Arre. menos que el p. Mari González de Ansorena, el p. Estella y Justo. difícil volver a txistularis. Po. que el p. Arrieta hijo de Bonifacio Laskurain.